

7.FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure jarduerak aurrera eramateko hainbat baliabide beharko ditugu. Baliabide hauek bi multzotan banatzen dira: baliabide materialak eta baliabide ukiezinak. Gainera, jarduera bakoitzak bere baliabide espezifikoak beharko ditu, nahiz eta jarduera guztietan oinarritzko baliabide batzuk komunak izan. Baliabide horiei esker, gure proiektua bideragarria izango da eta bezeroei balio erantsia eskaintzeko aukera izango dugu.

Jantziak neurritik egiteko jarduera

Lehenengo eta funtsezko jarduera gure bezero bereziei jantzi bat neurritik egiteko zerbitzua eskaintzea izango da. Jarduera hau gauzatzeko, baliabide materialak eta ukiezinak ezinbestekoak izango dira.

Alde batetik, baliabide materialak gure tailerreko materialarekin lotuta egongo dira. Horien artean sartzen dira josteko makinak, ebakitzeko eta konfektzionatzeko tresnak, kalitatezko ehunak eta jantziak sortzeko beharrezkoak diren bestelako materialak, hala nola haria, papera, neurgailuak, boligrafoak eta patroigintzarako tresnak. Horrez gain, lanerako espazio egokia izatea ere funtsezkoa izango da, bezeroa eroso sentitu dadin eta lana modu eraginkorrean egin ahal izateko.

Bestetik, baliabide ukiezinak funtsezkoak izango dira jarduera honen arrakastarako. Horien artean nabarmentzen dira josteko arloan dugun esperientzia eta ikasketak, neurritik jantziak egiten jakitea eta josteko makinak modu egokian erabiltzeko dugun trebetasuna. Era berean, gure irudimena eta sormena ezinbestekoak izango dira jantzi bereziak eta bakarrak diseinatzeko. Gainera, bezeroak ulertzeko dugun gaitasuna, haien gustuak eta beharrak entzuten jakitea, eta bezeroak gure denda ongi etorriak eta eroso sentiaraztea ere baliabide ukiezin oso garrantzitsuak izango dira.

Jarduera hau bost ataletan banatutako prozesu baten bidez egingo da: lehen kontaktua eta zerbitzuaren azalpena, bezeroarekin lehen hitzordua gustuak eta neurriak jasotzeko, bi proba-egun jantzia egokitzeko eta azkenik, jantzia amaituta dagoenean, salmenta eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzea.

Bezeroarentzako arreta eta aholkularitza pertsonalizatua

Bigarren jarduera nagusia bezeroarentzako arreta eta aholkularitza pertsonalizatua izango da. Jarduera hau egiteko, baliabide material sinpleak beharko dira, hala nola denda barruko espazio egokia, ispiluak, probalekua eta informazioa jasotzeko euskarri digitalak edo paperezkoak.

Hala ere, jarduera honetan baliabide ukiezinak garrantzi handiagoa izango dute. Bezeroekin komunikatzeko gaitasuna, enpatia, modaren eta estilismoaren inguruko ezagutza, eta konfiantzazko harremanak sortzeko ahalmena izango dira jarduera honen oinarria. Aholkularitza honen bidez, bezeroei egokienak diren jantziak gomendatuko dizkiegu, haien gorputz motara, gustuetara eta erabilera beharretara egokituta.

Bezero leialentzako jarduera bereziak

Beste jarduera garrantzitsu bat bezero leialentzako jarduera berezien antolaketa izango da. Jarduera hauen barruan sartzen dira bilduma berrien aurkezpen pribatuak, tailer tematikoak, promozio bereziak eta fidelizazio-programak.

Jarduera hauek gauzatzeko, baliabide materialak beharko dira, hala nola ekitaldiak egiteko espazioa, produktuen erakusketarako materiala eta komunikaziorako euskarriak. Baliabide ukiezin aldetik, antolaketa-gaitasuna, sormena, bezeroekin dugun harreman ona eta ekitaldiak dinamizatzeko trebetasuna funtsezkoak izango dira.

Diseinua, berrikuntza eta kalitate-kontrola

Azkenik, produktuen diseinua, berrikuntza eta kalitate-kontrola ere funtsezko jarduerak izango dira. Jarduera hauek aurrera eramateko, material egokiak, kalitatezko ehunak eta lan-tresna zehatzak beharko dira. Aldi berean, modaren joeren inguruko ezagutza, berritzeko gaitasuna eta xehetasunekiko arreta baliabide ukiezin nagusiak izango dira, gure produktuak merkatuan bereizteko aukera emango digutenak.

7.FUNTSEZKO JARDUERAK

Hainbat jarduera aurrera eramango ditugu gure enpresaren barruan, betiere bezeroen esperientzia hobetzea eta gure markarekiko leialtasuna indartzea helburu nagusi izanik. Jarduera horietako batzuk gurekin denbora luzez egon diren bezeroei zuzenduta egongo dira, hau da, ohiko bezeroei, haien konfiantza eta fideltasuna saritzeko asmoz.

Lehenengo jarduera gurekin denbora luzea daramaten bezeroentzako eskainiko diegu, **jantzi bat neurrirra egiteko aukera** izango baita. Jarduera hau prozesu pertsonalizatu bat izango da, bost ataletan bananduta egongo dena. Lehenengo atalean, bezeroari jantzia neurrirra egiteko aukera eskainiko diogu eta jarduera honen funtzionamendua zehaztasunez azalduko diogu. Bezeroak onartzen badu, lehenengo data bat adostuko dugu bezeroaren eta dendariaren artean, aurrez aurreko hitzordu bat egiteko.

Bigarren atalean, adostutako egunean, **bezeroarekin bilera pertsonalizatua egingo dugu**. Egun horretan bezeroaren gustu pertsonalak ezagutuko ditugu, bere estiloa, kolore gustukoenak eta jantzia zertarako erabiliko duen kontuan hartuta. Horrez gain, bezeroaren neurriak hartuko ditugu eta jantziaren diseinua elkarrekin adostuko dugu, bezeroaren iritzia eta beharrak une guztietan kontuan izanik.

Hirugarren eta laugarren atalak bezeroarekin adostutako bi egun izango dira. Egun horietan jantziaren probak egingo dira, jantzia behar bezala egokitzen dela ziurtatzeko. Proba hauetan, beharrezko aldaketak egingo dira, bai neurriei dagokienez bai diseinuari dagokionez, bezeroa guztiz gustura geratu arte.

Azkenik, bosgarren atalean, beste egun bat adostuko dugu jantzia guztiz amaituta dagoenean. Egun horretan jantziaren salmenta egingo da eta, horrez gain, aholkularitza pertsonalizatua eskainiko diogu bezeroari. Aholkularitza honetan, jantzia nola konbinatu azalduko diogu, zein osagarri edo bestelako jantziekin erabili daitekeen gomendatuz, bezeroak bere inbertsioari ahalik eta etekin handiena atera diezaion.

Beste jarduera bat bezero mota hauentzako izango da, fidelizazioa are gehiago indartzeko helburuarekin. Jarduera honetan, bezero leialentzako **deskontu bereziak eta promozio eskusiboak** eskainiko ditugu, hala nola, urtean behin %20ko deskontua edo lehentasunezko sarbidea bilduma berrietara. Gainera, bezero hauei gonbidapenak bidaliko dizkiegu ekitaldi berezietara, hala nola aurkezpen pribatuetara edo estilo-aholkularitza saioetara, non gure produktuak eta zerbitzuak modu eskusiboan ezagutzeko aukera izango duten.

Lehen azaldu dugun jardueraz gain, beste hainbat jarduera garatuko ditugu gure enpresaren barruan, bezeroei balio erantsi handiagoa eskaintzeko eta gure markarekiko harremana sendotzeko helburuarekin.

Beste jarduera garrantzitsu bat bezero leialentzako **estilo-aholkularitza** pertsonalizatua izango da. Jarduera honetan, bezeroek hitzordu bat hartu ahal izango dute gure aholkulari profesional batekin. Hitzordu horretan, bezeroaren estilo pertsonala aztertuko da, bere eguneroko beharrak, laneko edo ekitaldietako janzkera kontuan hartuta. Aholkulariak gomendio zehatzak emango dizkio bezeroari, bere gorputz motara eta gustuetara hobekien egokitzen diren jantziei buruz, baita koloreen eta ehunen konbinazio egokienei buruz ere.

Horrez gain, bilduma berrien aurkezpen pribatuak antolatuko ditugu bezero mota hauentzat. Aurkezpen hauek dendako ordutegitik kanpo egingo dira, giro lasai eta eskusibo batean. Bezeroek aukera izango dute produktu berriak lehenengoei

ikusteko, probatzeko eta erosteko, baita diseinatzailerekin edo arduradunekin zuzenean hitz egiteko ere. Horrela, bezeroak berezi sentiaraziko ditugu eta gure markarekiko lotura emozionala indartuko dugu.

Beste jarduera bat deskontu eta abantaila berezien programa izango da. Programa honen bidez, bezero leialek deskontu eksklusiboak izango dituzte urte osoan zehar, baita eskaintza berezietarako sarbide goiztiarra ere. Gainera, erosketen arabera puntuak pilatzeko aukera eskainiko diegu, eta puntu horiek etorkizuneko erosketetan trukatu ahal izango dituzte edo zerbitzu berezietan erabili, adibidez, doako konponketak edo jantzi baten egokitzapenak.

Bestalde, **tailer eta ekitaldi tematikoak** antolatuko ditugu. Tailer hauetan modarekin eta janzkerarekin lotutako gaiak jorratuko dira, hala nola, jantzien zaintza egokia, ehunen ezaugarriak edo joera berrien azalpena. Jarduera hauek talde txikietan egingo dira, bezeroek parte-hartze aktiboa izan dezaten eta esperientzia aberasgarri bat bizitzeko aukera izan dezaten.

Azkenik, **online aholkularitza zerbitzua** ere eskainiko dugu bezero leialentzat. Zerbitzu honen bidez, bezeroek gure aholkulariekin harremanetan jarri ahal izango dute bide digitaletatik, hala nola bideo-deien edo mezuen bidez. Honek erosotasuna eta denbora aurrezteko ahalbidetuko du, batez ere dendara bertaratzeko aukerarik ez duten bezeroentzat, baina hala ere arreta pertsonalizatua jaso nahi dutenentzat.

Lehentasunak

Aipatutako jarduera guztien artean, lehentasunak honela ezarriko ditugu:

1. Jantziak neurrira diseinatu eta ekoiztea, gure balorezko proposamenaren oinarri nagusia delako.
2. Bezeroarentzako arreta eta aholkularitza pertsonalizatua, bezeroen gogobetetasuna eta fideltasuna bermatzeko.
3. Kalitate-kontrola eta ekoizpenaren jarraipena, produktuaren kalitatea uneoro mantentzeko.
4. Produktuen diseinua eta berrikuntza, epe ertain eta luzera lehiakorrak izateko.
5. Bezero leialentzako jarduera berezien antolaketa eta fidelizazio programak, markarekiko lotura emozionala indartzeko.